



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA

ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko apirilaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, apirilaren bostean, zortziak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean.

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatua zena: CHAMALBIDE Corinne

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine

Deialdiaren eguna: 2022ko martxoaren 31

Afitxatze eguna : 2022ko martxoaren 31

6.ERABAKIA : HERRIKO LANGILERIAREN TAULAREN ALDAKETA.

(Nomenklatura 4.1 – LFP-ko Titular eta ikastun langileak)

Jaun Auzapezak oroitarazten du Kontseiluari, Lurralde Funtzio Publikoko 1984ko urtarrilaren 26ko lege aldatuan 34.artikuluak dion bezala, elkargo edo erakunde bakoitzeko erabakitzaileek dituztela enpleguak sortzen beren elkargo edo erakunde bakoitzean.

Kontuan harturik 2020ko agorrilaren 4ean hartu zen deliberoa langileriaren taula onartuz,

Kontuan harturik beharrezkoa dela laguntzaile tekniko postu baten sortzea denbora osoz eta 2.mailako laguntzaile tekniko nagusi baten postua denbora osoz 2022ko buruilaren 1ean erretretarat joanen den laguntzaile teknikoaren ordezkatzeko,

Kontuan harturik beharrezkoa dela lan denborako tenoreen eta langile batzuen graduen eguneratzea,

Jaun Auzapezak proposatzen du entzulegoari, loturik den langileriaren taula onartzea.

Bere iritzia eman eta, Jaun Auzapeza entzun eta deliberatu ondotik,

Herriko Kontseiluak

ERABAKITZEN DU laguntzaile tekniko postu baten sortzea denbora osoz bai eta 2.mailako laguntzaile tekniko nagusi baten postua denbora osoz 2022 ko apirilaren 5etik goiti.

ERABAKITZEN DU proposatu langileriaren taula onartzea 2022ko apirilaren 5etik landa indarrean izanen dena,

ZEHAZTEN DU behar diren kredituak badirela aurrekonduan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko apirilaren 5an

Auzapeza,

Jean-Marc OÇAFRAIN



Betegarria bilakatu den akta,

2022/04/25ean publikatu edo notifikatu ondoan,

Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/04/25ean.

***ANNEXE: TABLEAU DES EMPLOIS DE LA COMMUNE D'OSSES AU 05 AVRIL 2022**

FILIERE	EMPLOIS PERMANENTS	GRADES CORRESPONDANTS	CATEGORIE	EFFECTIFS BUDGETAIRES	EFFECTIFS POURVUS	TEMPS DE TRAVAIL HEBDOMADAIRE MOYEN
ADMINISTRATIVE	Secrétaire de l'agence postale communale et la mairie	Adjoint administratif principal de 1 ^{ère} classe	C	1	1	15 heures
	Secrétaire de mairie	Attaché territorial	A	1	1	Temps complet
TECHNIQUE	Adjoint technique Cantonnier	Adjoint technique	C	1	1	Temps complet
		Adjoint technique principal de 2 ^{ème} classe	C	1	1	Temps complet
		Adjoint technique principal de 1 ^{ère} classe	C	1	1	Temps complet
	Adjoint technique Bâtiments communaux Et école	Adjoint technique principal de 1 ^{ère} classe	C	1	1	32.94 heures
ANIMATION	Animatrice	Animateur principal de 1 ^{ère} classe	B	1	1	18.50 heures
	Agent d'animation	Adjoint d'animation principal de 1 ^{ère} classe	C	1	1	32.52 heures
	Agent d'animation	Adjoint d'animation de 2 ^{ème} classe	C	1	1	19.94 heures